

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko otsailaren 27an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

HERNANIKO UDALAREN ETA GOIZ EGUZKI ERRETIRATUEN ELKARTEAREN ARTEKO DIRULAGUNTZA HITZARMENA, PERTSONA HELDUENTZAT OSASUN ETA ONGIZATE JARDUERAK ANTOLATZEKO 2024KO BIGARREN ORDAINKETA ETA 2025EKO LEHENENGO ORDAINKETA ONARTZEA

Alkatearen 2023/521 dekretuaren bidez, Goiz Eguzki Erretiratuen elkarteari dirulaguntza ematea onartu zen, pertsona helduentzat osasun eta ongizate jarduerak antolatzeko. 2023-2024-2025 eta 2026 urteetarako.

Dirulaguntza horretan jasota dago dirulaguntza bi zatitan egingo dela:

1. Dirulaguntzaren %60 (9.000 euro) aurrerapen gisa ordainduko da, hitzarmenaren onarpenarekin batera.
2. Dirulaguntzaren %40 (6.000 euro) diruz lagundutako gastuen justifikazioa aurkeztean.

Hurrengo urteetan (2024-2025-2026), urte horretan egindako jardueren memoria eta justifikazioa aurkezten direnean, hurrengo urteko lehen ordainketa egingo da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko martxoaren 7an egindako bilkuran onartu zuen Goiz Eguzki Erretiratuen elkarteari 2024. urteari dagokion dirulaguntzaren lehenengo zatia ordaintzea (%60: 9.000 euro) udal aurrekontuaren partida honen kargura: 02.481.02.231.05.

2024ko otsailaren 7an aurkeztutako eskabidearen bidez, 2024. urtean jarduerak antolatzeko emandako dirulaguntzaren gastuak justifikaziorako beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu zuen Goiz Eguzki Erretiratuen elkarteak, fakturak eta ordainketa agiriak, jardueren memoria, balantze ekonomikoa eta abar.. Erregistro zenbakia (2025-001324).

Dirulaguntzen zuriketari lotuta 2024ko otsailaren 12an Adinekoen teknikariak aldeko likidazio txostena egin du, aurkeztutako dokumentazioa ontzat emanez eta beraz dirulaguntza justifikatutzat emanez, ordaintzeko falta den zatia bideratu dadin (%40: 6.000 euro).

Txostenak kontu-hartzailearen oniritzia jaso du.

Kontuan hartu da Herritarrentzako zerbitzuen Batzordeak 2025eko otsailaren 20ko bilkuran AHO BATEZ emandako irizpena

Horiek horrela, Gobernu Batzarrak **AHO BATEZ erabaki du**

1. Goiz Eguzki Erretiratuen elkartearekin sinatutako dirulaguntzaren hitzarmenaren diru zuriketarako aurkeztutako dokumentazioa onartzea eta dirulaguntza justifikatutzat ematea.
2. Goiz Eguzki Erretiratuen elkarteari, hitzarmenean onartutako dirulaguntzaren bigarren zatia ordaintzea (%40: 6.000 euro).
3. Goiz Eguzki Erretiratuen elkarteari 2025. urteari dagokion dirulaguntzaren lehenengo zatia ordaintzea (%60: 9.000 euro) udal aurrekontuaren partida honen kargua: 02.481.02.231.05.
4. Erabaki honen berri ematea Goiz Eguzki Erretiratuen elkarteari eta kontu-hartzailletza sailari.

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritz

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Hernanin 2025eko otsailaren 27an

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa

Hernaniko udal-Idazkaria

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus



EKS | CSV: **ESKU2e7932eb-876e-445d-af20-1502bb2b03ce**

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>